



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

E. coli brotea Alemanian 2011/05/30

Kontsumitzeko gomendioak –Maiatzaren 30ean eguneratua-

“Espainian ez da antzeman brote horrekin zerikusia duen kasurik. Beraz, barazki hori beti bezala kontsumitzen jarraitu behar dugu. Nolanahi ere, ez ditugu ahaztu behar barazki hori prestatzean garbitzeko eta zuritzeko ematen diren ohiko gomendioak”.

Iturria: AESAN

Gaixotasunak Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Europako Zentroak (ECDC), behin-behineko balioztatzean aurkitu ditzazkegun datuak

1

Datu interesgarri berriak

- Apirilaren 25etik maiatzaren 27ra 276 SHU kasu antzeman dira. Gaixotasun hori ohikoagoa da 5 urtetik beherako umeen artean; baina, **brote horrek ez dio eredu horri jarraiki**. Izan ere, helduen artean antzeman dira kasuen % 87, batik bat, emakumeen artean (kasu guztietatik % 68).
- Gaixoei hartutako laginek baieztatu egin dute ***E. coli* O104:H4** bakteriaren presentzia.
- Hesse-ko eta Bremerhaven-eko gaixoengan isolatu diren bi anduia oso **erresistenteak** dira hirugarren belaunaldiko zefalosporinen aurrean, bai eta trimetoprim/sulfonamida eta tetraziklinen aurrean ere.

- Kasu gehienak Alemaniako iparraldean gertatu dira edo oso lotuta daude iparraldearekin (kaltetuen eremura bidaiak...): Hanburgo, Saxonia Beherako iparraldea, eta Schleswig-Holstein. Hesseko kasuak kafetegiak hornitzen dituen catering enpresa bati lotuta daude.
- Oraingoz, Austria, Txekiar Errepublika, Finlandia, Frantzia, Hungaria, Irlanda, Italia, Norvegia, Polonia eta Esloveniak jakinarazi dute azken aste honetan ez dagoela ohiz kanpoko jarduerarik VTEC kasuei dagokienez euren mugen barruan.
- Suedian antzeman diren 10 SHU kasuak maiatzaren 5etik 15era bitartean Alemaniara egindako bidaiekin lotu dituzte.

Ondorioak:

- Alemaniako historian antzemandako VTEC broterik handiena dugu honako hau. Gainera, **brote horren banaketa ez da ohikoa kaltetuen adina eta sexua aintzat hartuz gero.**
- Kasu berriak agertzen diren bitartean, esan daiteke kutsaduraren **iturria oraindik ere aktibo dagoela.**
- Ez dago ebidentziarik eta ziurta daiteke kutsatutako **elikagaiak ez direla Alemaniatik kanpo banatu, eta kutsadura eragin zuen iturria ikertzen jarraitzen dute** (2011/05/27).
- Identifikatu egin beharko dira aipatutako datetan (apirilaren erdialdetik maiatzaren hasierara) Alemaniara bidaiatu ziren gaixo posibleak, gaixotasunaren fase arriskutsuak gara ez daitezten.
- **Higiene neurriak ezinbestekoak dira, gaixotasunak ez hedatzeko pertsonen arteko kontaktuaren bidez.**

AESAN eta RASFFaren jakinarazpenak 2011/05/26

Alerten Sareak, RASFFek, AESANi jakinarazi dio **Espanian** pepinoa ekoizten duten **bi enpresa** egon daitezkeela inplikaturako brote horretan. Jakinarazpenak, halaber, Holandako enpresa bat ere aipatzen du.

Lotu egin dituzte pepinoen laginetan isolatu duten baktería eta kaltetutako gaixoen artean aurkitutako baktería.

AESANek, bere aldetik, jakinarazi du dagoeneko neurri egokiak hartu dituztela, inplikaturako loteekin bat datozen produktuak ez merkaturatzeko.

Bestalde, baieztatu egin du **ezin dela hipotesi bakar bat ere baztertu, ez eta kutsadura helmugan gertatu ahal izan dela produktua ekoizteko edo maneiatzeko prozesuan**; beraz, kutsadurak ez luke zerikusirik enpresa ekoizleekin.

BfRen jakinarazpena: Brotea Alemanian 2011/05/26

Alemanian agintariek ikerketa bat egin dute kaltetutako eremuan, eta antzeman dute bakteriak kutsaturako pertsonen tomate, pepino eta entsalada (guztia gordinik) gehiago kontsumitzen zutela gaixotu gabekoek baino. **Beraz, horrek esan nahi du elikagai mota hori izan daitekeela brotearen jatorria; hala ere, ezin dira baztertu beste elikagai mota batzuk.**

Dirudenez, Alemania osoan eman da brotearen berri; baina, brote gehienak iparraldean gertatu dira.

Alemanian agintariek gomendatu dute higie-neurriak areagotzea fruta eta barazkiak kontsumitzean. Gainera, gomendatu dute ez kontsumitzea tomaterik, pepinorik eta entsaladarik (elikagai gordinak), batik bat, herrialdearen iparraldean.

Gehiago jakin nahi al duzu baktería horren inguruan?

Escherichia coli gizakien eta animalien hesteetan egoten den baktería da. *E. coli* gehienak ez dira kaltegarriak izaten; baina, mota batzuek (verotoxigenikoak izenekoak- **VTEC**-, Shiga toxinen sortzaileak edo enterohemorragikoak) honako sintoma hauek eragin ditzakete: beherako larria (maiz odoltsua), sabeleko kolikoak, sukar arina edo sukarririk eza.

Kutsatutako elikagaiak **kontsumitu eta bizpahiru egunera** ager daitezke sintomak, baina tarte hori egun batekoa edo astebetekoa ere izan daiteke.

Normalean, osasuntsu dauden helduak astebetean sendotzen dira. Nolanahi ere, hainbat taldetan, besteak beste ume eta adinekoen artean (**gaixo guztien % 8**) gaixotasunak sindrome hemolitiko-uremikoa (SHU) eragin dezake. Gaitz horrek giltzurrunetan lesio larriak sorraraz ditzake, eta hilgarriak gerta daitezke. European SHUK eragindako heriotza-tasa **% 3-5**ekoa da.

European, 2008. urtean, **0,66 kasu jakinarazi ziren 100.000 biztanleko**. Kopuru hori ia ez da aldatu ere egin 5 urtean.

Uste da hausnarkariak, bereziki ardi-azienda, bakteria horien gordailu nagusiak direla. Hau da, animalia horietan metatzen dira E. Coliak eta kontsumitzen ditugun elikagaiak kutsa ditzakete. Ez da baztertzen, ordea, beste elikagai batzuen kutsadura, besteak beste: barazkiak eta gaizki maneia daitezkeen, eta, ondorioz, kutsadura gurutzatua jasan dezaketen elikagaiak. Horrelakorik saihesteko, aholku erraz hauek har ditzakegu aintzat sukaldean- [Higienea sukaldean](#)-.


Hainbat kutsadura-bide daude. Elikagaiak kutsa ditzaketen gaixotasunen kutsadura-bide ohikoena gutxi kuzinatutako behi-haragia eta behikiak (hanburgesak, haragi xehatua...) izaten dira.

Garrantzitsua da kontrolak egitea nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan, VTECak elikakatean sar ez daitezen. Horrez gain, ezinbestekoa da Higiene Praktika Egokiak jarraitzea haragia prozesatzean eta elikagaiak maneiatzean.

Aurreko urteetan, badirudi kasu gehiago antzeman zirela 0 eta 4 urte bitarteko umeen artean (4,72 kasu 100.000 biztanleko, batez bestekoa 0,66koa izanik). Gainera, dirudenez, kasu horiek urtaroen ereduari jarraitzen diote; izan ere, udako hilabeteetan egiten dira jakinarazpen gehienak.

Bestalde, antzeman da VTEC horiek erresistentzia garatzen ari direla gaixotasunaren aurka erabiltzen diren zenbait antibiotikoren eta horien nahasketaren aurrean.

Erreferentziako bibliografia



Lotura honetan dago bibliografia guztia eskura:

<http://bit.ly/EcoliAlemania>

Outbreak of Shiga toxin-producing *E. coli* (STEC) in Germany

http://www.ecdc.europa.eu/en/publications/Publications/1105_TER_Risk_assessment_EColi.pdf

AESANen jakinarazpena -2011/06/26-

http://www.aesa.msc.es/AESAN/web/notas_prensa/pepinos.shtml

BfRren jakinarazpena -2011/06/25-

http://www.bfr.bund.de/en/press_information/2011/14/preliminary_results_of_the_ehec_hus_study-70594.html

Patogeno nagusiak – ELIKAREN WEB orria, “Kontsumitzaileentzat” atala -

http://www.elika.net/consumidor/es/preguntas_patogenos.asp

Annual epidemiological report on communicable diseases in Europe – 2010

http://ecdc.europa.eu/en/publications/Publications/1011_SUR_Annual_Epidemiological_Report_on_Communicable_Diseases_in_Europe.pdf

Escherichia coli and *Staphylococcus aureus*: bad news and good news from the European Antimicrobial Resistance Surveillance Network (EARS-Net, formerly EARSS), 2002 to 2009

<http://www.eurosurveillance.org/ViewArticle.aspx?ArticleId=19819>

ECDCren datu epidemiologikoak 2006-2010

http://ecdc.europa.eu/en/healthtopics/VTEC_Verocytotoxinogenic_Escherichia_coli_infection/epidemiological_data/Pages/annual_epidemiological_report.aspx

Factsheet for the general public –ECDC-

http://ecdc.europa.eu/en/healthtopics/VTEC_Verocytotoxinogenic_Escherichia_coli_infection/basic_facts/Pages/factsheet_general_public.aspx

Large outbreak of haemolytic uraemic syndrome caused by *E. coli* in Germany – important advice for travellers

<http://www.hpa.org.uk/NewsCentre/NationalPressReleases/2011PressReleases/110526GermanEcoli/>